



## HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

**Espedientea: DNCG\_LEY\_54759/21\_07**

**Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Lege-aurreproiektua** jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan irailaren 15ean Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Hezkuntza Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, *xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua*, eta *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua* oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

### a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

*Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak* xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. *Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak*, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”*.

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena uztailaren 22koa da, eta irailaren 15ekoa Zerbitzu Juridikoaren txostena; bete da, beraz, aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Xedapenaren prozedurari abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea aplikatu behar zaio, nahiz eta indargabetuta egon, ekainaren 30eko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen xedapen iragankorrak dioenaren arabera.



Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Dekretu Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

#### b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Lege-aurreproiektuaren memorian aipatzen den bezala, hezkuntza gizarte batentzako apustu estrategiko sakonenetako eta konplexuenetako bat da, eta azken hamarkadetan gizartearen euskalduntzean izan duen rola kontuan hartuta, hizkuntza-normalizazioaren ikuspegitik funtsezko osagaia da, ezinbestekoa errealitate elebiduna lortzeko.

Aztertzen ari garen Lege-aurreproiektuak xedatzen du Euskal eskola publikoaren helburua, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, hezkuntza-sistema eleaniztuna bermatzea dela, eta, ikasketak amaitzean, ikasleek maila berean ezagutu behar dituztela bi hizkuntza ofizialak.

68. artikuluan jasotzen da Lehen Hezkuntza amaitzean Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 azpimaila bi hizkuntza ofizialetan lortzea izango dela helburua; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerako, B2 maila ezartzen da. Gutxieneko helburu horiek zenbateraino betetzen ote diren ikasle bakoitzari arreta ematen dioten irakasle-taldeek ebaluatuko dute.

Ikasle guztiek xedatutako hizkuntzan ezagutza-maila lortuko dutela bermatzeko, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak ebaluazio-tresnak jarriko dituela xedatzen da, irakasle-taldeek berek lortutako mailak baloratu ahal izateko.

Helburu gisa ezarritako hizkuntza ezagutza-mailak aproposak iruditzen zaizkigun arren, uste dugu komenigarria litzatekeela ebaluazio horiek egiteko irizpide homogeenoz batzuk erabiltzea, eta adierazle komunak emaitzak estatistikoki onargarriak eta elkarren artean konparatzeko modukoak izan daitezkeen..

Beste alde batetik, kontuan izan behar dugu, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten eremuen aniztasun soziolinguistiko eta ekonomikoa, eta funtsezkoa da Administrazioak baliabideak jarriko dituela xedatzea desberdintasun horiek arintzeko. Horrelako adierazpen bat sartu gehitu liteke 68. artikuluan.

69. artikulua hizkuntza-proiektuak arautzen ditu. Bertan xedatzen da funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeek beren hizkuntza-proiektua egin beharko dutela, non zehaztuko den hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren. Hizkuntza-proiektu horiek ikasleen hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta hizkuntzekiko jarrera positiboa planifikatu beharko dutela xedatzen da, ingurune soziolinguistikoa eta ikasle eta irakasleen profila kontuan hartuta, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatutako hizkuntza-maila eta beharrezko gaitasunak eskura ditzaten. Halaber, hizkuntza-proiektuak ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpideak garatu beharko ditu. Hizkuntza-proiektu horien jarraipena eta ebaluazioa, hobekuntza-prozesuak gauzatzeko, hezkuntza-administrazioak egingo duela xedatzen da.

Hizkuntza-proiektuen edukiak eta horien ebaluazioa oso modu orokorrean agertzen dira Legean. Uste dugu, duten garrantziaren ondorioz, legea indarrean sartu ondoren arauz garatuko beharko direla, hizkuntza planifikazioa ahalik eta eraginkorra izan dadin.

Alde batera utzita gerora arau bidez garatzen diren edo Lege-aurreproiektuan bertan garatzen den, garrantzitsua iruditzen zaigu hizkuntza-proiektuek jaso beharko luketen funtsezko gauzetako bat euskara ikastetxeetan lan-hizkuntza izango dela bermatzeko neurriak eta plangintza direla. Izan ere, Legeak xedatzen du hizkuntza-proiektuek ikasleen ikaskuntza, erabilera eta hizkuntzarekiko jarrera positiboa planifikatu behar duela, baina ez da ezer aipatzen lan-hizkuntzari buruz. Komenigarria iruditzen zaigu gogoraraztea Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13ko bilkuran onartutako EAEko Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideek ezartzen dutela Sektore Publikoa euskararen normalizazioan eredu izango dela eta euskara ere zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izatea direla helburuak.

Azkenik, 75. artikulua, euskararen ingurumen-erabilera eta gizartearen erantzukizun partekatuari buruzkoak, euskara erabilera orokortzeak hezkuntza-komunitate osoaren erantzukidetasuna berarekin dakarrela xedatzen du. Eskola kanpoko jarduerak ere funtsezkoak dira euskararen erabilera orokortzeko eta gizarte-eragileekin lankidetzan aritzea oso onargarria izan daiteke alderdi horretan. Horregatik, 75. artikuluari gizarte-eragileekiko lankidetzat bultzatuko dela gehitzea komeni dela uste dugu.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria